

UDALBALTZAK 2023KO AZAROAREN 2AN EGINDAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Ibernalo Basterra Txasko And.

ZINEGOTZIAK

Miryam Cándida Quintana Urrea And.
Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna
Javier López de Luzuriaga García jauna
Esteban Gómez Echagoyen jauna
Lucia Elorza Lorenzo And.

BERTARATU EZINA

Manuel Muñoz Morentin jauna
Juan José García de Acilu Perez jauna
Ione García de Acilu Diaz de Alda And.

IDAZKARIA: Lara Salceda Villaumbrales, fede ematen du.


Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hogeita hiruko azaroaren 3an, goizeko ordubatak eta hogeita hamaika minutu izanda, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ezohiko bilkura egiteko Alkate andrea buru dela, Ibernalo Basterra Txasko, bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 46.2 c) artikuluekin eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90.artikuluekin bat etorritik, beharrezko quoruma betetzen dela egiaztatzen da, eta ondore, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

1.- UDALETXEA HANDITZEA PROIEKTUAREN ALDAKETA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Udalbatzak 2023ko otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, Santikurutze Kanpezuko Samuel Picaza plazako 1. Zenbakiak dagoen udaletxea handitzeko proiektua onartu zen, Soltura arkitektura bulegoak aurkeztutako proiektuarekin bat etorritik.

Udalbatzak 2023ko irailaren 12an egindako ohiko bilkuran erabaki zen hutsik uztea udaletxea eraberritzeko eta handitzeko obra-kontratuaren lizitazio-prozedura, 01/2023-O espedientearekin jarraitua, lizitatzailerik ez zegoelako.



Agiri teknikoaren prezioak berrikusteko eta lizitazio berri bat egiteko baimen-eskaera ikusi da (1RP inprimakia, irailaren 22an Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean erregistratua), goian adierazitako obraren agiri teknikoaren prezioak berrikusi eta beste lizitazio bat egin ahal izateko.

91/2023 Foru Agindua, urriaren 3koa, prezioak berrikusteko baimena ematen duena, aztertu da.

Kanpezuko Udaleko Hirigintza Sailak prezioak kontrastatu ditu.

Arkitektura Bulegoak aurkeztutako exekuzio-proiektua eta aurrekontuaren laburpena aztertu dira.

Aipatutako foru aginduan aurreikusitako epeak kontuan hartu dira.

Kontuan hartu da Udalbatzaren osoko bilkuraren eskumena dela, eskatutako zenbatekoaren arabera, Toki Araubidea arautzen duen 7/85 Legearen 21. eta 22. Artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

XEDAPEN ZATIA:

Udalbatzak, bertaratutako zinegotziak (Basterra, Quintana, Lopez de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, Gomez eta Elorza) aho batez honako ERABAKI hau hartu du:

LEHENENGOA.- Udaletxea handitzeko proiektua eta prezioak berrikusi ondoren eguneratutako aurrekontu berria onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari bidaltzea, 22/10087-P espedientean jasotako gainerako administrazio-dokumentazioarekin batera, bertan ezarritako epean.

2. 05/2023 KREDITU GEHIGARRIA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkateak bertaratutakoei jakinarazi die beharrezkoa dela hainbat jardunei dagokien gastuaren finantzazioa asetzea

XEDAPEN ZATIA:

2022-2023 Foru Plazaren Programan sartutako udaletxea handitzeko egikaritze-proiektuaren prezioak eguneratu ondoren, eta rokodromoko kirol instalazioetan hainbat jarduera egin ahal izateko (hainbat armairu erosi), zein udal pilotalekuko kirol instalazioetan hainbat aktuzio egiteko (obra txikien espedientean jaso ez zen frontoiko lona berritzea).

Dagokion gastuaren finantzaketa ordaindu ahal izateko, kreditu hau gaitu da:

KREDITU GEHIGARRIA 05/2023	
UDALETXEA HANDITZEA ETA ERABERRITZEA	54.885,43
KIROL INSTALAZIO HIGIGARRIAK	1996
GUZTIRA	56.881,43

Aurreko zenbatekoa ondoren aipatzen diren baliabideek finantzatzen dute, eta espedientea berdinduta aurkezten da, defizitik gabe:

<u>KONTUA</u>	<u>SAILA</u>	<u>ZENBATEKOA</u>
87.000	Diruzaintzako gerakina	56.881,43

Bitarteko idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena aztertu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21. Eta 22. Artikuluetan jasotako eskumenak eta aurrekontua gauzatzeko oinarrien 12.8. artikuluan deskribatutakoa aztertu da.

XEDAPEN-ZATIA:

ERABAKIA: Udalbatzak, bertaratutako zinegotziak (Basterra, Quintana, Lopez de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, Gomez eta Elorza) aho batez honako ERABAKI hau hartu du:

LEHENENGOA.- Kreditu gehigarria konektatzeko 05/2023 espedientea onartzea, 56.881,43 eurokoa guztira, bertan agertzen diren gastu-partiden eta hura finantzatzen duten baliabideen xehetasunekin.

BIGARRENA.- Espediente hori jendaurrean jartzea, erreklamazioak egin ahal izateko, 3/2004 Foru Arauaren 15. Artikuluan ezarritako moduan eta epeetan.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Azkenik, Alkateak bertaratu diren udal-bozeramaileen taldeari galdetu dio ea galderarik egin nahi duten, eta ez da ezer azaldu.

Hurrengo Udalbaltza ohikoa izango dela eta 2023ko azaroaren 7an aurreikusita dagoela jakinarazten da.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkurari amaiera eman dio idazpuruaren eguneko ordubatak eta berrogei minutu direnean. Nik, Idazkariak, horren fede ematen du.

Alkatearen oniritzia,

Idazkaria,



ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 2 DE NOVIEMBRE DE 2023

ASISTENTES:

PRESIDENTA:

Dña. Ibernalo Basterra Txasko

CONCEJALES Y CONCEJALAS:

Dña. Miryam Cándida Quintana Urrea

D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz

D. Javier López de Luzuriaga García

D. Esteban Gómez Echagoyen

Dña. Lucia Elorza Lorenzo

EXCUSA SU ASISTENCIA

D. Manuel Muñoz Morentin

Dña. Ione García de Acilu Díaz de Alda

D. Juan José García de Acilu Perez

SECRETARIA: Lara Salceda Villaumbrales, que da fe del acto.

En Santa Cruz de Campezo, en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ilustre Ayuntamiento de Campezo, siendo las trece horas y treinta minutos del día dos de noviembre de dos mil veintitrés, se reunieron en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión extraordinaria del Pleno las Concejales y Concejales anteriormente enunciados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa Dña. Ibernalo Basterra Txasko, con asistencia de la Secretaria Interventora interina.

Se procede a la comprobación de la existencia de quórum de asistencia precisa para que se pueda iniciar, de acuerdo con los artículos 46.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 90 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, pasándose a continuación a despachar los asuntos incluidos en el orden del día.

1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE PROYECTO "AMPLIACIÓN CASA CONSISTORIAL"

Considerando que en sesión ordinaria de este pleno celebrada con fecha 22 de febrero de 2023 se aprobó el proyecto de ampliación de la casa consistorial ubicada en la Plaza Samuel Picaza Nº1, en Santa Cruz de Campezo, de acuerdo con el proyecto de ejecución presentado por el despacho de arquitectura "Estudio Soltura".

Visto que en sesión ordinaria de este pleno celebrada con fecha 12 de septiembre de 2023, se acordó declarar desierto el procedimiento de licitación del contrato de obra para la reforma y ampliación de la casa consistorial, seguido con número de expediente 01/2023-O, ante la falta de licitadoras.

Vista la solicitud de autorización para realizar la revisión de Precios del documento técnico y para proceder a una nueva licitación, impreso número 1RP, registrada en fecha 22 de septiembre ante el registro general de la Diputación Foral de Álava, con el fin de poder realizar la revisión de precios del documento técnico de la obra arriba indicada y proceder a una nueva licitación.

Vista la Orden Foral 91/2023 de 3 de octubre, donde se dispone la autorización para la revisión de precios.

Considerando el contraste sobre los precios realizado por el Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de Campezo.

Visto el Proyecto de ejecución y el resumen de presupuesto presentado por el Despacho de Arquitectura.

Considerando los plazos previstos en la precitada Orden Foral.

Visto que se trata de una competencia del Pleno de la corporación, en virtud de la cuantía solicitada, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 21 y 22 de la Ley Reguladora del Régimen Local 7/85.

PARTE DISPOSITIVA:

El pleno de la Corporación Municipal, por unanimidad de los/as Sres./as Concejales/as asistentes al acto (Sres./as Basterra, Quintana, López de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, Gómez y Elorza), visto cuanto antecede, adopta el siguiente **ACUERDO**:

PRIMERO.- Aprobar las el proyecto de ampliación de la casa consistorial y el nuevo presupuesto actualizado tras la revisión de precios.

SEGUNDO.- Remitir el presente acuerdo a la Diputación Foral de Álava junto con el resto de documentación administrativa reflejada en el expediente Núm 22/10087-P dentro del plazo establecido en el mismo.

2. APROBACIÓN SI PROCEDE, DEL CRÉDITO ADICIONAL 05/2023

La Sra. Alcaldesa informa a los asistentes acerca de la necesidad de satisfacer la financiación del gasto correspondiente a diversas actuaciones.

PARTE EXPOSITIVA:

Que, para poder satisfacer la financiación del gasto correspondiente al nuevo presupuesto tras la actualización de precios del proyecto de ejecución para la ampliación de la casa consistorial incluida en el Programa de Plan Foral 2022-2023, y, para poder llevar a cabo varias actuaciones en las instalaciones deportivas del rocódromo, comprando varias taquillas, y del frontón municipal, renovando la lona del frontón que no había sido contemplado el en expediente de obras menores, se procede a la habilitación del siguiente crédito:

CRÉDITO 05/2023	
AMPLIACIÓN Y REFORMA CASA CONSISTORIAL	54.885,43
INSTALACIONES DEPORTIVAS MOBILIARIO	1996
TOTAL	56.881,43

El anterior importe queda financiado por los recursos que a continuación se relacionan, de forma que el expediente se presenta nivelado sin que se produzca déficit:

<u>PARTIDA</u>	<u>DENOMINACIÓN</u>	<u>IMPORTE</u>
87.000	Remanente de Tesorería	56.881,43

Visto el informe emitido por la Secretaria-Interventora interina.

Vistas las competencias recogidas en el artículo 21 y 22 de la Ley Reguladora de Bases del Régimen Local, 7/85, de 2 de abril, así como lo descrito en el artículo 12.8 de las Bases de ejecución del presupuesto.

PARTE DISPOSITIVA:

ACUERDO: Se acuerda por El pleno de la Corporación Municipal, por unanimidad de los/as Sres./as Concejales/as asistentes al acto (Sres./as Basterra, Quintana, López de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, Gómez y Elorza):

PRIMERO.- Aprobar el expediente de conexión de crédito adicional número 05/2023, por un importe total de 56.881,43 euros, con el detalle de partidas de gasto y recursos que la financian que figuran en el mismo.

SEGUNDO.- Exponer dicho expediente al público a efectos de reclamaciones en la forma y plazos fijados en el artículo 15 de la Norma Foral 3/2004.

TERCERO.- Considerar este acuerdo como definitivo si no hubiera reclamaciones.

Por último, la Sra. Alcaldesa pregunta al grupo de portavoces municipales presentes si quieren formular algún tipo de cuestión, no produciéndose ninguna.

Se comunica que el próximo pleno municipal tendrá carácter extraordinario, y está previsto para el próximo martes 7 de noviembre de 2023.

Y no habiendo más asuntos, la Sra. Alcaldesa levanta la sesión a las trece horas y cuarenta minutos del día del encabezamiento, de lo que yo, La Secretaria, Doy fe.

VºBº Alcaldesa

La Secretaria